

# Kanalak

Gure bezeroengana era egoki baten komunikatzeko hainbat aukera proposatuko ditugu. Gure helburua, gure bezeroekin ahalik eta tratu hurrunena edukitzea izango da. Era berean, gure asmoa ere da bezeroak gure enpresaren partaideak izatea. Hau da, nahi dugu berezok gauza batzuk bere gustura moldatzea eta lasai asko gurekin komentatzea. Adibidez, bezero batek nahi badu urtebetetze bat ospatzea gure autozinean, gurekin batera antolatzeko aukera izango du. Esandakoa dela eta, ofizina bat izango dugu non bezeroak gurekin harreman zuzena izango dute.

Oro har, autozine bertan postontzi bat jarriko dugu, bezeroak nahi dutenean beraien filma gustukoena gurekin partekatzeko.



Alde batetik, telefono eta gmail bat eskura utziko ditugu; modu honetan, erosleekin harremana izateko aukera errazagoa izango dugu eta haien zalantzak eta aipamenak guri jakinarazteko hautabide erosoak izango dute. Modu berean, komunikabide hauek izanda pentsatzen dugu berezok gehiago animatuko direla edozer gauza gurekin komentatzeko.

Beste aldetik, sare sozialen bidez eta kaleen zehar publizitatea partekatuko dugu, gure enpresa zabaltzeko. Bertan, gure negozioaren asteroko berriak adieraziko ditugu, bezeroei informatuta mantentzeko.

